

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2020 Zerga premiazko araugintzako Dekretua, urtarrilaren 28koa Arabako zerga araudia egokitzea Estatuak balio erantsiaren gaineko zergan egindako aldaketara

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Itun Ekonomikoa onetsi zuen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen 26. artikulua xedatzen du balio erantsiaren gaineko zergari Estatuak aldi bakoitzean xedatzen dituen funtsezko arau substantibo eta formal berak aplikatuko zaizkiola.

Zergen, katastroaren eta gizarte segurantzaren alorreko zenbait neurri onetsi zituen abenduaren 27ko 18/2019 Legegintzako Errege Dekretuaren 4. artikulua 2020ko ekitaldirako mugak xedatzen ditu balio erantsiaren gaineko zergaren erregimen errazturako eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako erregimen bereziko.

Itun Ekonomikoari buruzko Legearen 26. artikulua betetzearen, beharrezkoa da zerga premiazko araugintza dekretu honen bitartez Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuan aipatutako aldaketa sartzea eta, era horretan, aipatutako zerga eguneratzea.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horren ondorioz, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuak proposatuta eta Diputatuen Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorak 8. artikuluan eta Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua aldatzea

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuari xedapen iragankor bat erantsi zaio, hamalagarrena, eta 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak. Xedapen horrek honako testu hau izango du:

“Hamalagarrena: Araubide erraztua eta nekazaritzako, abeltzaintzako eta arrantzako araubide berezia aplikatzeko mugak 2016ko, 2017ko, 2018ko, 2019ko eta 2020ko ekitaldietan.

2016ko, 2017ko, 2018ko, 2019ko eta 2020ko ekitaldietarako, arau honetako 122. artikuluko bigarren apartatuko 2. eta 3. zenbakietako lehenengo marratxoan eta 124. artikuluko bigarren apartatuko 6. zenbakian ezartzen den magnitudea, 150.000 euro, hemendik aurrera 250.000 eurokoa izango da”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluan adierazitako ondorioak izango ditu.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Hirugarrena. Batzar Nagusiei igortzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen arautegian ezarritakoaren arabera berretsi edo ezeztatu dezaten.

Gasteiz, 2020ko urtarrilaren 28a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA